

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Karguen arduraldia, araubidea eta ordainsariak argitaratzea

Udalbatzak, ekainaren 28ko bilkura berezian, aho batez, hau erabaki zuen:

Lehenengoa. Luis Aldazabal Ruiz de Viñaspre alkate-lehendakariak eta Juan Carlos Uribe Rueda lehen alkateordeak euren karguei dagozkien zereginak arduraldi partzalean gauzatzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Ordainsari horien zenbatekoa udalak langileekin duen hitzarmenean jasotako baldintzen arabera eguneratuko dira. Era berean, ordainsari horiek ez dira bateragarri administrazio publikoetako edo horien mendeko erakunde, organo edo enpresetako aurrekontuen kontura ordaindutako beste batzuekin, ez eta beste zenbait jardunekin ere, halaxe xedatzen baitu abenduaren 26ko 53/1984 Legeak.

Hirugarrena. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta ohartaraztea haien karguan arduraldi partzalean arituko direla. Arduraldi hori onartutzat joko da baldin eta jakinarazpen epetik 24 ordutan ezer adierazten ez badute interesdunek.

Laugarrena. Urteko aurrekontua gauzatzeko udal arauak xedatuko ditu ordainsariak, arduraldia eta urteko aldaketei buruzko gaiak.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta web orrialdean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5. artikuluan xedatutakoa betez.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Eltziego, 2019ko uztailaren 19a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE